

Azpeitian, 2013ko apirilaren 23an

Lagun agurgarria,

Dakizuenetz, Azpeitiko egungo behar eta ahulezi nagusienei aurre egiteko Plan bat osatzeko lehenengo pausuak ematen ari gara, **Azpeitia 2025 Plan Estrategikoa**ren prozesuaren eremuan. Honen helburu nagusia gure udalerriko garapen eredu berri baten oinarriak finkatzea da, iraunkortasunaren aldeko apustua sendotuz.

Plan hau herritar, politikari eta udal teknikarien artean lantzen ari gara hasiera hasieratik. Herritarrekin lehenengo bilera martxoan ospatu genuen, bizilagun zein udalerriko sektore ezberdinak ordezkatzan duten eragile askok parte hartu zenutelarik. Bertan, Azpeitiko ahulezi, mehatxu, indarrak eta aukerak aztertu genituen.

Azpeitiko eremu sozial eta ekonomikoei buruzko **diagnostikoa** osatu dugu jada, udalerriko indargune eta ahuleziak identifikatzen direlarik. Zentzu honetan, zuek egindako ekarpenak benetan baliagarriak izan direla esan beharra dago.

Honetaz gain, diagnostiko honek udalerriko lehentasunezko eremuak zeintzuk diren zehazten ditu, hau da, egungo egoera aztertu ondoren, udalerriko garapen iraunkorra bermatzeko arlo bakoitzean eman behar izango liratekeen aurrerapausoak.

Oraingo honetan, diagnostikoaren emaitza nagusiak azaldu eta zuekin partekatu nahi ditugu. Bestalde, Plan berria definitzeko beharrezkoak izango diren lehentasunezko eremuak zuekin batera zehaztu eta osatu nahiko genituzke. Horretarako, datorren **apirilaren 29an**, arratsaldeko **7etan**, bilera berri bat ospatuko dugu.

Bilerak, gutxi gora behera, ordu t'erdi bateko iraupena izango du.

Aldez aurretik zure interesa eta parte hartzea eskertuz, agur bero bat,

Eneko Etxeberria
Alkatea